

Prensa oharra

Nota de prensa



Loiolako Erriberako, Intxaurrondoko eta Groseko haurreskola berrien obrak amaitu dira

Hiru haurreskola horiek 2026-2027 ikasturtean irekiko dira, eta 89 plaza izango dituzte guztira.

Donostiako Udalak lehen zikloko hiru haurreskola berrien obrak amaitu ditu, eta 2026-2027 ikasturtean irekiko dira. Haurreskola berri horiek Loiolako Erriberan, Intxaurrondon eta Grosen egongo dira kokatuta, eta guztira 89 plaza berri eskainiko dituzte zero eta bi urte bitarteko haurrentzat. Horren bidez, eskari historiko bati erantzuten zaio, hain zuzen ere orain arte eskaintza nahikorik ez zuten hiriko eremuetan.

"Haurreskoletako plaza berri bakoitza aurrerapauso zehatz bat da, emakumeek lan-bizitzaren eta seme-alabak zaintzearen artean hautatu behar ez izateko. Orain arte haurreskolarik ez zuten auzoetan eskaintza publikoa zabaltzea berdintasun-politika bat ere bada" adierazi du Berdintasuneko zinegotzi Ane Oyarbidek.

Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntza bati esker egin dira obrak. Dirulaguntza hori Europar Batasunak Next Generation EU funtsen bidez finantzaturako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren barruan dago, eta 1.828.313,70 euroko aurrekontua izan du guztira.

Haurreskolak

Loiolako Erriberako Haurreskolak, Gabriel Laffitte 3 Plazan kokatua, 34 plaza eskainiko ditu: 8, urtebetetik beherakoentzat, eta 26, urtebetetik bi urtera bitarteko haurrentzat. Intxaurrondokoak, Baratzategi kaleko 19. zenbakian, 21 plaza izango ditu, honela banatuta: 8, urtebetetik beherakoentzat, eta 13, 1 eta 2 urte bitartekoentzat. Bestalde, Groseko Zectoria kaleko 20. zenbakiko haurreskolak ere 34 plaza izango ditu, eta horietatik 8 urtebetetik beherakoentzat izango dira, eta 26, 1 eta 2 urte bitarteko haurrentzat.

Datozen asteetan matrikulazio-prozesua abian jarriko da, herritarren arretarako UdallInfo udal-zerbitzuaren bidez. Plaza-esleipenaren kudeaketa Eusko Jaurlaritzaren zerbitzuaren ardura izango da. Zerbitzu horrek haurreskola publikoetarako sarbidea koordinatzen du, eta leihatila bakarra da haur-hezkuntzako lehen zikloan plaza eskatzen duten familientzat.

Emakumeak lan-merkatuan berdintasun-baldintzetan sartu eta mantentzeko faktore erabakigarrietako bat da oraindik ere haur-hezkuntzan plaza bat

Prensa oharra

Nota de prensa



eskuratzea", adierazi du Ane Oyarbide Berdintasuneko zinegotziak. Gaineratu duenez, "eskaintza publikoa, doakoa eta etxetik gertukoa bermatzea tresna eraginkorrenetako bat da berdintasunean aurrera egiteko eta emakumeek beren karrera profesionalaren eta seme-alaben zaintzaren artean hautatu beharrik ez izateko".

Hiru haurreskola berri horiek martxan jartzea beste aurrerapauso bat da Donostiako Udalak hirian haur-hezkuntza publikoaren eskaintza handitzeko eta hobetzeko egiten duen etengabeko ahaleaginean. Apustu horrek, auzoen beharrei erantzuteaz gain, zuzeneko eragina du milaka familiaren eguneroko bizitzan, lehenengo egunetik lan- eta familia-bizitza modu bermatuan uztartzeko aukera ematen baitie.